



KARDA BERAZ



OARRA:

*Liburuxka au beste luzeagoño baten
zati bereizea dezu. Liburu luzea
Aita Kardaberaz'en Omenaldirako
aterako da.*

Ona idazlarien zenbait izen:

Manuel Lekuona

Santi Onaindia

Arostegi'tar Jokin

Goikoetxea-Maiza'tar Joan

Txomin Irigoyen

Pedro Berrondo

Luis Larrañaga

Anastasio Arrinda

Manuel Estomba

Loidi'tar Paben . . .

AITA
KARDABERAZ'I

OMEN-ALDI

Donostia - 1971

KARDABERAZ BAZKUNA
San Martín, 57 - entrlo. DONOSTI

(separata)

LEGEZKO GORDAILLU S. S. 541/71

LEGE-AGINDUAK BETEAK

ESKEINTZA

*Aita Agustin Kardaberaz'i
bere eriotzaren 200 gn. urtean
eskeintzen dio lan-bilduma au*

«Kardaberaz Bazkunak»

*Aita Kardaberaz'en omenaldiak izan dira azken
illabete auetan. Guk ere bi gauza auek eskeiñi
nai genizkion berari:
Kardaberaz Bazkunaren berpiztea ta Euskal-
-erriari buruzko idazti-Sorta bat.*

Anastasio Arrinda

KARDABERAZ
BAZKUNA

Gazteiz : 1924-1936

Donostia: 1970

ITZ-AURRE

Ba zan orduantxe Gazteiz'ko Apaizgaitegian kultura-lanetarako gogo. Republika-aurreko urteak ziran. Ikastola ofizialetan erakusten zana gain, igertzen genduan beste ainbat gauza ere ikasi bearra zegona: —beste ainbat gauzetan trebatu bearra zegola, alegia—; eta, ezarian-ezarian sortzen asi ziran, privatim docenter-edo deritzaten oietako zenbait ikasgo, nai zuanak nai zuana aukeratuaz, ofizial-bidetik at zerbaitetan jardun eta trebatzeko. Sortu zan Mixio-gaietako Akademiarik; sortu, ideologi-gaietarako Gymnasium'ik; sortu zan, baita, euskal-idazleentzako ere exercitatorium deritzaken sail bat: KARDABERAZTARRAK.

Orixe izan zan, gure Kardaberaztarren Akademiaren sorrera.

* * *

Instituzio oiek etziran goitik-beerakoak izaten; betik-gorakoak baizik. Etziran «ezartzen»; «sortu» egiten ziran: ikasleak berak sortzen zituzten. Ori bai, disziplinaz ala bear-ta, Irakasle baten mendean. Kardaberaztarrak, nere mendean sortu ziran. Bañan au ere bai: ez nik ezarrita; ikasleak berak neri beren asmoak ekarrita baizik; eta gauza, danon artean eratu...

Ofizialez-landako gauzak ziranez, Akademia oiek, beti ere, ikaste ofizialari laguntzeko, ikaste ofizialari beaztoparik egin gabe ibiltzeko bear zuten izan. Bañan ain ondo neurtuak izan arren, gogozko erakundeak izanik, oso gogoz artzen zirana ez dago esan bearrik. Oso gogoz artu, eta lana ere gogotik egin.

* * *

Gure Akademiaren asmoa, elburua esan det: euskal-idazleak sortu eta idazten trebatzea zan. Jakiña: idatziz-ta-idatziz. Aldian bein lantxo bat, bakoitzak al zuan ondoen egiña ekarri bear zuan. Eta, txandan-txandan, astiak agintzen zuan neurrian, gure batzarretan irakurri ta aztertu. Gaia, bakoitzak nai zuana, bakoitzari zerizkiona.

Salla ugaritu zitzaigun berealako batean. Teologoak bakarrik sartzen ziralarik, berrogeitamaretan gora azkar jo genduan.

* * *

Olakoxe asierak izan zituan gure KARDABERATZ-AKADEMIAK Gazteiz'ko Apaizgaitegian...

Gerratearekin il zan... Bañan gaur berriz pizturik, berriro bere burua azaldu du. Baimen guztiaz orniturik. Egokitasuna, Aita Agustin Kardaberatz'en beraren eriotzako berreun urte betetzeak eman digu.

—Bazkideak? —Asieran giñanetatik oraindik bizi geranok; eta, orain berritik sartu nai dutenak, gaiñera; eta ez Apaiz geranok bakarrik; baita ez diranak ere.

—Elburua? —Euskeraz idatzi. Orduan ikasteko bezela, gaur ikasteko ta erakusteko... Kristau-pentsamentu jator baten barruan, euskera eder batean idatzi.

LEKUONA'tar Manuel'ek

CAJA DE AHORROS
DEL
Monte-Pío Diocesano de Vitoria

LIBRETA n.º 500.

CORRESPONDIENTE A

Academia del P. Cardaveraz, Seminario Con-
vicio de Vitoria

EL TESORERO,
Basilio Porterra Manuel de Leizaola
Dn. de

EL PRESIDENTE,
Rosario Lacort

Don

N.º

FECHA	PESETAS (con letra)	ENTRADA		SALIDA	
		Pequetas	Cts.	Pequetas	Cts.
1924. Abril 8	seleuta	70			
1985 Dic. 31	Intereses Capitalizados al 36	2450			10450
1985 Dic. 31	Intereses	1277			20200
12 MAR 1971	documentos p.ºnta Cuenta a la vuelta			250	502

Lumonen J. J. J. J.

J. J. J. J. J. J.

Aprieta J. J. J.

Angrieta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Aranteta J. J. J.

Marta de Madalena Prisita B. B. R.

Mberdita Hudoi

Obzibarator Hadelina

St. Agnes tar Patten

Alfons tar Sou Andini

Arandita tar Jara Minna

Oratara tar Jopon

Armanita tar Siatki

Hyanrita tar Hamun

Agribita tar Carol

Balansita tar Jopon

Arandita tar Jara Minna
Arandita tar Paris

Jandita tar Karmela

Jandita tar Julia

Jandita tar Rana

Katipita tar Julia M.H.

Katipita tar Julia

Lusa tar Didaka

M. Yanguita tar Lupa

Mendita tar Sefura

Mendita tar M. H.

Mendita tar Petre

Mendita tar Julia Carol

Mendita tar Sefura

Oratara. M. H. B. K. H. tar Petre

Arandita tar Julia

Arandita tar Julia

Arandita tar Julia

Arandita tar Julia

Eitola'lar Einar

Astrid Einarsson
Kologuon'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Laiton

Stebon'lar Jaska

Eksaaga'lar Jaska

Stebon'lar Jaska Sm

Garmenda'lar Jaska Niemi

Soikotacacundia'lar Erika

Jondar'lar Eirik

Opionafutan'lar Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Ungta'lar Jaska Niemi

Instansi dan Lembaga
Galangan dan Patroli

Instansi dan Lembaga
Bergambar dan Jendela

Perwakilan dan Komite
Eksekutif dan Juru

Perwakilan dan Komite

Eksekutif dan Juru
Perwakilan dan Komite

Perwakilan dan Komite

Perwakilan dan Komite

Perwakilan dan Komite

Perwakilan dan Komite

Perwakilan dan Komite

Perwakilan dan Komite

Perwakilan dan Komite

Perwakilan dan Komite

Perwakilan dan Komite

Perwakilan dan Komite

Perwakilan dan Komite

Teologoak beuren gogoia era orretara agertzen zuten artean, etziran lo egon filosofoak... Ona zer dion Jose Mari Zamorak:

1933 - 36

Don Manuel Lekuona'rekin asi giñan.

Igandeetan, Filosofian.

Lenengo bazkideak:

Albizu - Anakabe - Aritzmendi - Azpitare - Etxebarria - Esnaola - Gangoiti - Gorostidi - Mendizabal - Narbaitza - Oyarzabal - Zamora - Zubillaga - Zuluaga.

Gero etorritakoak: Etxebeste - Barandiaran.

Asieratik, gogotsu ta indartsu ibilli giñan.

Astero: batzarra.

Illeroko eginbearra:

Bakotsak, lan bat agertu; guztion artean aztertu ta gero bik emon euren erabagia, ia zeintzuk egoki ziran gure aldizkingian argitaratzeko. Gero guztion artean argitaratu lenengo gelatinan eta gero multikopia baten.

Bederatzi aldizkingi argitaratu ziran urte orreitan.

Gure aldizkingiko lanak geinak edo asko «EKIN» asterokoan argitaratu ziran. Baita be batzuk «ARGIA»n eta «EUKADI»n eguneroko Euskal Atalian.

Beste gure eginbear bat zan: Beti gure artean EUSKERAZ egitea; bestela bost xentimo multa.

Filosofiako irakasleak, gure ikastaroak zirala ta, arduraz ebiltzazan; ordu asko galtzen genduazala ta erabaki eben: «Benemeritus» gutxienez lortu bear genduala asignaturetan.

Egia esan: an ibilli giñanok, gaur euskeraz ezer ba-dakigu, orduan euskeraz ikasten eta zabaltzen jardun genduelako da; ta kementxu alegindu giñalako.

«IKASI TA ZABALDU» izan zan gure elburua.

Ordurarte ta orduan argitaratu ziran euskal idazti guztiak edo geinak irakurri genduzan. Ez bakarrik irakurri; baita be zabaldu ta saldu.

Bai Seminarioan eta baita be, bakazioetan, errietan.

«GAROA» (bigarren argitaratua) EUN baño geiago saldu genduzan.

Baita be, gure lana, batez be bakazioetan; gabon kantak eta bertso zaarrak errietan batzea zan.

Lekeitio'ko Olerki egunean (AZKUE'ren aitaren omenez egin zana) 1936'garren urtean, sari bat lortu genduan:

«AITZOL'en itzak Don Manuel'eri: —Baña Don Manuel: zer da au; Dana Seminariora!!! Otamendi - Lekuona - Sukia - Dorronsoro - Aurrera Beti: bost sari».

Orain arte Euskerak izan dituzan idazlariak, geienak, elizgizonak izan dira. Orregaitik, eliz-gaiak izan dira, idatzitakoak.

Gaur gure euskerak, TEKNIKA GAIK argitaratu bear ditu.

Orixe, bear ba-da, gustiok alkartuta, izan leike KARDABERAZ bazkunaren bigarren aldi onetako eginkizuna.

EUSKERAK BURUA JASOTZEA, Jainkoak nai ba-dau, guazen gustiok aurrera beti ta IKASI TA ZABALDU daigun euskera maitea.»

* * *

Ona Teolojiko lau korsoen arteko Kardaberaz bazkunak:

- 4.º — Andonegi A., Añibarro, Etxeberria J. D., Loidi P., Sagarna.
- 3.º — Amutxategi, Irigoien Tx., Irasuegi B., Plazaola S.
- 2.º — Abaunza J. L., Arostegi J., Arrinda A., Arruti Er., Solozabal P., Sukia J. M.
- 1.º — Albizuri, Ansorena J. L., Barruetaña, Bilbao, Berrondo, Garamendi, Jauregi J. L., Goikoetxea M., Zuloaga.

Lana egiteko era berdiña erabili oi zuten talde guziak. Zuzendaria, berriz, Lekuona jauna guztientzat.

1970

BIZI - BERRITZE

1970: *Irailak 25*. Donostiako Gotzaitegian (Plaza del Buen Pastor, 17-4) giza talde bat bildu giñan, Gotzaia buru gendula ta Aita Agustin Kardaberaz gai: nola, alegia, bere omenez jai-aldiak antolatu, aurten betetzen bai dira berreun urte ura ill ezkeru.

Urrillaren 18'an egin ziran festok Ernanin: Erri-Meza, dantzariak, bersolariak eta abar...

Baiña, Aita Kardaberaz eta Euskerari buruzko zerbait egitea nere gaiñ utzi zuten batzar artan. Ona arren ondoren idatzi nuen iskribua:

«Debatik. Urrillak 2, urtea 1970.

Lagun biotzekoa:

Berreun urte dira Kardaberaz Aita ill zala. Ori dala ta, Donostiako Eleiz-barrutiak festa batzuk antolatu nai ditu bai Ernanin bai Ernanitik kanpo ere.

Asmo ori aurrera eramateko komisio bat sortu berria du. Komisio orren saill batek «Kardaberaz ta Euskera» izango du gai.

Saill orren organizatzalle aukeratu naute; orra zergatik natorkizun zure laguntzaren eske.

Bi asmok osatzen dute gure gai orreri buruzko egin nai guzia:

Gazteizko Seminarioko «Kardaberaz» Bazkuna berpiztu edo arren antzeko bat sortu lenengoz.

Aita Kardaberazen omenaldi onetan liburu bat aterra, bere omenez, zenbait lanekin. Euskerazkoak bearoko dute izan lan auk. Ori degu bigarren asmoa.

Bi asmo oien ondorio bezela, ona zuretzako bi galdera nere partetik:

- 1.^a «Kardaberaz Bazkun» orren tartekoa izango ziñake?
- 2.^a Sozio izan-nai edo ez omenaldi-liburu orren-tzako lantxoren bat egingo zenduke iru ille-bete-buruan? Amar folio inguruko lana goitik edo beetik: luzeago edo motzago, lanaren gaiak eskatuko balu.

Arren bi galdera aueri, erantzun mesedez. Aurretik eskerrik asko. Zure menpeko dan

Anastasio Arrinda»

Eskutitz onen fruituak bereala agertu ziran. Ikus nola:

«KARDABERAZ BAZKUNA. Leenengo agiria.

Deba-n, 1970-ren Azaroak 5, Anastasio Arrinda Parroko jaunaren etxean, elkartu dira: Anastasio Albisu, Donato Arrinda, Domingo Irigoyen, Juan José Garmendia ta Pedro Berrondo. Guziak, Anastasio Arrindaren deiari erantzunaz etorriak. Elkarri agur-egiñaz t. a. egon ondoan, A. Arrinda jaunak billeraren elburua ta aztertu-bearreko gaia aurkeztu zizkigun...

II. KARDABERAZ BAZKUNAREN berpiztea:

Berrondo jaunak, oraingoz eta asierako izan genezakean araudi labor bat aurkeztu du. Onartua izan da.

Geiagoko luzapenik gabe asi egiñ bear dela-ta, oraingoz (urte beterako) zuzendaritzarako autatuak aukeratu dira:

Leendakari — Manuel Lekuona jauna, gerra-aurrekoa bera.

» — ordezeko: Anastasio Arrinda.

Idazkari — Pedro Berrondo.

Diru-zai — Juan Jose Garmendia.

Bizkai-alderako arduradun — : Donato Arrinda.

Euskeratzaileen arduradun — Anastasio Albisu.

Omen-liburuaren arduradun: Domingo Irigoyen.

Autatze au egiñ ondoren, bakoitzak bere ardurakizuna onartu du. (Lekuona jauna Andoain-en zanez gero, beregana joan ziren Irigoyen, Garmendia ta Berrondo jaunak, eta Lekuona-ren baiezkkoa jaso zuten; oraindik, gerra-aurreko fitxa-bilduma, liburu ta idazkiren batzuk ba omen dira... ta aukeratu guziak bazkun berpiztuarenak izango dira).

Bazkun jaioberriaren leenengo erabakiak aukeratu dira:

«Kardaberaz Bazkuna», Elizaren lege-bideetan ibilli aal dediñ eta onela bere nortasuna izan dezan, Gotzaiari baiezkkoa eskatzea. Eginkizun au Irigoyen eta Arrindaren eskuetan gelditu zen.

Leenbaitleen, idazkaritzaren bulegoa sor-eraztea; oraingoz, Sn. Martin Gotzaia-neko Ofizina-etxean izango da. San Martin, 57.

Eta luzatzeke beste billera bat egiteko asmoakiñ, oraingo au bukatu zen.

Pedro Berrondo Idazkari».

* * *

Arrezkero erantzunak izan giñuzen pillo bat ta bitartean Bazkun txikiak bere billerak asi ta jarraitu ditu. Ona idazkariaren berriak:

«Kardaberaz Bazkuna» ren zuzendaritzakoak (Manuel Lekuona, Anes Arrinda, Txomin Irigoyen A. Albisu, Juan J. Garmendia, Pedro Berrondo) Donostiako bulegoan bildu dira.

Azaroaren 22-an, ta Abenduaren 3-an ta 10-an. Erabillitako gaiak auk izan dira:

—asierako batzarre zabala noiz ta nola egiñ.

—bazkide arteko billerak noiz ta nola.

—idazleen lana nola sor-erazi ta non ta nola zabaldu bear bezala argitaratuaz.

Asierako batzarre zabala Ernanin egitea pentsatu zen Abenduaren 17-an. Era ontan:

Don Manuel Lekuonaren itzaldia: «Euskal-aditza» Kardaberaz idazleagan.

Zamora jaunak: «Kardaberaz bazkuna» gerra-aurrean (36-koa).

Araudi laburra: datorren bezala onartu? zerbait kendu edo erantsi?

- a) bazkide izateko nor-zer-izanaren baldintzarik ez da: dela gizon, dela emakume, dela elizgizon, dela laiko... berdiñ.
- b) bazkunaren zuzendaritzak... bazkide berri bakoitzaren sarrerara onartu edo ukatu egingo du.

II. — Oraingoan, araudiaren 2-a dagon legez gelditzen da.

III. — Elkarrizketan garbi ikusi da... idazleak, beren langintzan eziñ litezkela beste bazkideen menpeko izan; eta orregatik, 3-ari agerpen au eranstea erabaki da:

- a) Idazle bakoitzak, berez, aukeramen osoa du bere idazlanean.
- b) Idazleek, beren langintzari dagozkionetan (gaitetan, iritzietan, idazkera-legetan) beren erabakiak artuko dituzte (berek bakarrik).
- c) Liburu bakoitza (dela laburra, dela zabalagoa) argitaratzekoan, zuzendaritzakoek ikusiko dute nola argitaratu ta nola zabaldu.
- d) Idazlangintza errazago aurrera eramatearren, Bizkaian zuzen dari talde bat sortzea erabaki da. Talde au Donostikoaren pareko izango da, lendakari bat-beraren menpean. Gaur etorri direnek talde oni asiera emango diote, eta auek dira: Pedro Pujana, Gotzon Rementeria, José M.^o Amutxategui, Juan Aranzamendi, Aita Onaindía.

Biltokirako, Zornotzako «Larrea» Fraide-etxea aukeratu dute, Aita Onaindiaren eskeintzari eskerrak eman ondoren.

Onelako zerbait Gasteizen sortzea... aal bada... Luis Larrañagaren esku utzi da.

Gai auen ondoren, beste bat sortu da aurrera eramanean bearrekoa: illean beingo eskola saioa... alegia, idazleen formaziorako billera... bakoitzak dakarzikin galderak elkarren artean aztartu ta argi-bide batzuk aukeratu. Zuzendaritza bakoitzak bere probintzian ikas-saio auek eratuko ditu.

Donostiko Gotzaigoan, «Sozial-elkartzeak» izeneko ordezkartzan, gure bazkuna, adar bat bezala txertatzea Bikario Jaunak nai

badu... asmo au urrera eramatea erabaki da; zuzendaritza bakoitza bere probintzian aaleginduko da.

Azkenik, Juan José Garmendia, diru-zai jauna... mintzatu da; asieratik onuntzko diru-erabilketa agertu du. Diru-bearra ikusiaz eta gai ontaz itzegiñ ondoren, erabaki au artu da: bazkide bakoitzak, sarrerako milla pezeta, ta urteoro beste milla pezeta... eman ditzala, Bazkaltzeko ordua izanik (ordu bata t'erdia) lendarikari jaunak batzarra bukatutzat eman du. ...gaiñerako zertzeladak bazkalondoan aipatuko direla esanaz.

Bazkalondoan, diru-zaiak... bazkide bakoitzaren sarrerako emaitza jaso du.

Diru-zaiaren itzaldia eta dirua eman dutenen izen-lerroa, orri onen ondoren jasotzen da. Baita ere... Zamora jaunak, bazkalondoko mintzaldi xamurrean, gerra-aurreko zenbait gertaera dotore ta goxokiro gogoratu dizkigu.

Besterik gabe, Loiolako erakunde-eguna amaitu gendun arratsaldeko lauak aldean.

Manuel Lekuona (f)

Anastasio Arrinda (f)

Pedro Berrondo (f)

Joaquín Arostegi
Gotzon Rementeria
Esteban Abarisketa
Gorostidi-tar Pedro
Albisu-tar Anastasi
José M.^a Laborde S. J.
Garmendia-tar Juan José
Galarraga-tar Juan Mari
Bergara-tar José M. S. J.
Larrañaga-tar Luis
Zamora José M.^a
Dorrnsoro-tar Jokin
Sotero Plazaola

Puxana Pedro
Amutxategi-tar Andoni
Aita Onaindia
Galarraga-tar Luis Mari
Irigoyen-tar Txomin
Gantxegi-tar Saturnino
Gaztañaga-tar Jesus
Artola-tar Errapel
Loidi-tar Paben
Esnaola-tar Serafin
Juan Arantzamendi
P. O. Ramón Narbaiza

ARAUDIA

«Euskerak burua jasotzea nai du Jaungoikoak»
(«Berri Onak», 1-ren azk.).

Elburua : Euskeraren bizitza, Euskalerrriaren onerako, kristau-pentsamentuaren barrenean, euskal-izkuntza egoki bati begiratuaz.

Bazkunaren ekintzarako, Aita Kardaberaz eredu.

Bazkideak I. Asierako, gerra-aurretik bazkide ziren guziei dei-egingo zaie. Bakoitzak, bazkun-berritze au onartuaz bere izena emango du. Onela osatutako bazkidetaldea izango da KARDABERAZ BAZKUNA.

a) bazkide izateko, noz-zer-izanaren baldintzarik ez da... dela gizon, dela emakume, dela elizgizon, dela laiko... berdiñ.

b) bazkunaren zuzendaritzak, bazkide bakoitzaren sarrera onartu edo ukatu egingo du.

II. Geroago, elkarren arteko iritzia entzun ondoren, araudi iraunkorra egingo da; oraingo au, bitarterako izango da.

III. Bi eratako bazkideak izango dira: idazleak eta lagunak. Izenak dakarren bezala, beren eginkizuna ez da berdiña izango: idazkiak sortzea edota laguntza ematea. Guziek batzarretan mintzatzeko eskubidea, ta erabaki-bearretan autamena izango dute.

a) Idazle bakoitzak, berez, aukeramen osoa du bere idazlanean.

b) Idazleek, beren idazlangintzari dagozkionetan (gaietan, iritzietan, idazkeralegetan) berek baka-rrik, beren erabakiak artuko dituzte.

- c) Liburu bakoitza (dela laburra dela zabalagoa) argitaratzekoan, zuzendaritzakoek ikusiko dute nola argitaratu ta nola zabaldu.
- IV. Autatze guzietan, erdiaz gaindiko autakiek erabakiko dute.

Zuzendaritza

- V. Kardaberaz Bazkunak izango ditu: Lendakaria, lendakari-ordezkoa, diru-zaia ta idazkaria.
- VI. Auetako bakoitza, bazkideen artetik autatua izango da: bazkide bakoitza, autagarri ta autatzaille da.
- VII. Autaketa, erdiaz gaindiko autakiek erabakiko dute; autatze-unean norberak an egon bearko du.
- VIII. Aipaturiko kargudunek, onelako kultur-bazkumetan oi dituzten eskubide ta eginkizunak izango dituzte, bai kulturari buruz, bai ekonomiari buruz.
- IX. Bazkide bakoitzak, diru-zaiari emango dio: sarre-rakoan milla pezeta, ta urteoro beste milla pezeta.

Ona lendakari-ordezkoaren itz batzuek Loiolako batzar nagusian:

«Agur Jaunak: Zergatik eta zertarako bildu geran gaur emen geienok ba dakigu. Ez dakienik ere egongo da bateren bat eta oientzako asiera-asieratik aстера nijoa:

Donostiako Gotzaitegian Irailla (edo Agorraren) 25'an batzorde bat aukeratu zuten Aita Kardaberazen eriotzaren berreun urtebetetzea nolabait adierazteko. Batzorde ortakoa nintzan eta batzar arren ondorio bezela bialdu nizuten zenbaitei idazti bat.

Erantzunak izan nituen orduan.

Zenbaitek ere lana eskeiñi zuen liburu jator bat Aita Kardaberazi eskeintzeko bere omenaldi ontan. Liburu onek ez du Aita Kardaberaz gai bakarra bezela artu bear. Esan bear dira Aita Kardaberazi buruzko-gauzak, baiña liburuaren gai berezia atzoko ta gaurko Euskalerrria bear du izan... Gure gizaarteko agertze ta presentazio egiteko modurik onena litzake... ta Euskal literatura arloan mugarri bat bezela ondorengoentzako utziko gendukena... Batek bakarrik ezin lezake orrelako lan bat egiñ, danon artean bai, ordea... Gauzak aldatzen dijoaz gaiñetik beeraiño ta laister, gure gaurdaiñoeko erri-jakintza ta gizarte oiturak, zilipurdika itzuliko dituzte... Ordurako, gure ta gure aurrekoen mugarri bat, testigu bat, aldatuko ez dan lekuko bat utzi bear diegu ondorengoai... Aita Larramendiren «Coreografia de Guipuzcoa» datorkit burura: bere garaian etzuten argitaratu; urte asko pasa zituan liburuak illunpetan argirik ikusteke... Gaur egun, ordea, bere garaian baiño interes geiago du... Zergatik? Bere garai ta gizarteko testigu ta lekuko dalako... Askotan orduko gauza xeeak esaten dizkigu: ordu artako garaian garrantzi txikikoak, danen bistan zeudelako, baiña gaurko egunerako inportantzi aundikoak orduko Guipuzko ta Euskalerrria ezagutzeko... Euskal erriak ditun gauza xee ta txikiak biltzea ez da garrantzi gutxiko lana, ez... Kobaetako arri-landu ta ezurrezko jostorrazak ez dira gauza aundi, baiña beurak ematen digute orain amar milla urteko euskaldunen berri... Aldakuntza izugarri baten ardatzean gaude: gure begien aurrean ari dira galtzen (ta betirako galdu ere) zenbait oitura, zenbait pentsa-molde, zenbait kultura-gai... Ta maitekor biltzen ez ba ditugu, galduko dira sekulako...

Kardaberaz Bazkunaren asmoa izan zan, bere seilloak dionez, IDATZI eta ZABALDU... liburu au bear luke izan gure garrantzidun leendabiziko idaztia...

Liburu ori, orain arte asmo utsa zan, baiña gaurtik zer edo zer geiago ba da asmo utsa baiño...».

IDAZLE - ESKOLA

«Kardaberaz-Bazkuna» Debako batzarrean sortu (berpiztu) gendunean, ez gendun bearbada onelakorik uste; baiña gure asmoen aurrera-bearrak ontara ekarri gaitu: «idazle-eskolara».

Asierako lanik bearrenekoak auek ziran:

— araudia onartu.

— bazkideak alkartu ta ugaldtu.

— diru-bideak arkitu.

— bazkuna Gotzaigoko erakundeetan txertatu.

— gure elburu-itzak diotenez: «idatzi ta zabaldu».

Eginkizun auen berri, liburu ontan emango dizute; nik, nere ontan, idaz-naiak... nola idazle-eskolara ekarri gaitun, agertuko dizut.

Iru eratakoa dugu gure idazlangintza:

— aldizkarietako artikulook; irrat-saiotarako ta zinerako... idazlantxoak.

— ideia-ereintzarako liburuxkak.

— idazlan sakonago-zabalagoak.

Oraingoz artikulook bear ditugu aldizkarietako; aurrerago ta geiago.

Eta eginkizun onek kezka batzuk ekarri dizkigu:

I. Idazkuntzari edo idazlegeari dagozkionak:

Nola idatzi duda sortzen zaidanean, non, nori, noiz... galde-egiñ, nola idatzi jakiñ dezadan?

a) Euskal-literatura antziñatik dator, baiña norberak eta bakoi-tzak... bide au artu bear-etzkeru, bide luzeegia ta zaillegia noski; desbertintasun ugari arkituko bait-du esaeraetan eta idazkeraetan.

b) Euskaltzaindiak eta euskal-maisu aundiek eman dituzte beren erakutsiak; baiña, aldiro-aldiro, Euskaltzaindiaren eta Azkueren edo Altuberen erakutsiak (ildakoak bakarrik aipatzeko) aztartzen

ibiltzea... gutxienez nekagarria, maiz-asko bide irrixtakorra norberantzat.

c) Idazleak nai lukena au litzake: nere lanean ari nintzela..., duda aukeratu zaizkit. Nola idatzi bear dut..., au, edo beste ori, edo arako ura? Eta tokiren bat izan dedilla... galde-egiteko... eta erantzuna edo argitasuna jasotzeko. Amabostean beñ edo illean beñ... onelako billeraren bat... lagunartean, elkarrizketan dudak agertu ta orain-arte eman diren erakutsiak ikusi ta ikasteko.

II. *Gaiari dagozkionak:*

Gure araudiak dionez: «Euskalerrriaren onerako, kristau-pentsamentuaren barrenean» bear du gure langintzak. Eta kontzientziak galde:

— Nondik nora Euskalerrriaren on-bidea?

— Kristau-bizitzaren aztertze ta eraberritze-garai ontan, zer dira erabat eutsibearrekoak?, zer, uztekoak?, zer, eraberritzekoak?

Eginkizun au zailla ta arrikkuduna izan arren, Jauna lagun... nolabait aurrera eraman bearra noski:

— Fedearen aurkako ideak (gaur egun indar bizikoak) kalean dabiltzanak jaso.

— Egiaren argi-billa saiatu.

— Gai bakoitzean jakintsu direnak, itzegitera, argi-ematera ekarri noizik-beinka.

III. *Periodismo-teknikari dagozkionak.*

Betidantik noski zailla idazlearen eta irakurlearen elkartzea; baiña zaillagoa gaur den egunean... gizaldiak, bata besteagandik eten direlako, eta noski-edo...elkarren arteko ulerteziña sortu zaigulako; ainstesteraiñoko berexketa burubideetan, oikeraetan, bizikera guzian... eta (nola ez?) izkera guzian.

Orregatik, jakintza-gai ontan esko!atutakoei entzun. Irakurleari jakia ematen zaion ezkeror, irakurlearen oikerak jakiñ, ta ondoren ikusi... zer ta nola ar-erazi eman nai diogun idea-janaria.

Iru eginkizun auek aurrera eramán aal ditzagun, «idazle-eskola» izenakin... ikas-saioa eratu dugu; Loiolako agiriak dionez «idazleen formaziorako». (1971, Otsaillak 18). Ikas-saio auek ez ditugu gutxi-goraberaka sortu; zertzuk lortu nai ditugun ba daki-gu; ortarako metodorik onena aukeratzen saiatu gera: alegia... bakoitzaren galde-naia ta izpidea zaindu; maisuen irakaskintzari lagundu; nekerik gabe probetxugarri, ikasiaz erakutsi, erakutsiaz ikasi.

Gerora, ikas-saio auek izan lezateken garrantzia nabarmena izanik, oraingo eskolasaio auek, ikuste-alde, esperientzi-legez izango ditugu uda-artean. Gero, egindako saioak ikertu ondoren, datorren Urrillan ikusi bearko zer ta nola gelditzen zaigun «idazle-eskola».

Bitartean eta oraingoz, onela doa:

— Illean bi aldiz, leenengo eta irugarrengo astelenetan.

— Goizeko amaiketari asi ta ordu batetan bukatu, erdian egonalditxo bat egiñaz.

— norbaitek, txoxketan autatuak, bere idazlana irakurri; ondoren, lagunarteko kritika.

— bakoitzak dakarzikin galderak.

— aurreroko billeran izendatutakoak, egindako estudioa agertu; idazki auek, bazkunaren sekretaritzan gordeko dira.

— periodismo-teknikari buruz edo ideolojiari buruz... irakas-taldia.

— kaleko ideagai bizien jasoketa.

— saio guzian elkarrizketa; batabesteaganako lotsa galdu, ta bakoitzaren barrunbeko eziñ-beldurrak eta kezka-ikarak uxa ditzagun.

Apirillaren bostean izan gendun leenengo; 12 lagun; asierako zalantzak; gogo ona ta aurrerako asmoa.

Apirillaren 19-n, 24 lagun; eskola-saioa... jaioberri-pausoak ematen asi da.

Maiatzaren 3-n, 26 lagun; aurreroko asteazkenean eskola-saioaren egitaraua agertu gendun periodikoan; bakoitzaren lanak ugaltzen eta galderak bizkortzen doaz; Lekuona ta Akesolo jaunak... zuzentzaille.

Asi-berri dugun eskola-saioari begiratuz, olerkari gazte baten itzak datozkit gogora: Esperantza berri bat euskal-baratzan... Eta gure biotz-ondoak dio: Loratu dedilla, eta fruitu eder eta ugariak eman ditzala.

Berriak egunero sortzen dira gure artean. Auxe da diru-zaiñak ekarri digun albistea:

Bi zine-pelikula luze ta zabalero normalekoak euskeratzeko bideak egin ditula Fides'en bitartez. Alkarrizketak bear bezela egingo ba'dire, ingelesetik zuzenean euskeratu bearko dira. Gure artean ba'dira ingeles eta euskera dakitenak.

¡Aurrera beti!

Idazkalariak

Maiatza, 1971.

